

## **5/2022 FORU ARAUA, ekainaren 22koa, Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 27koa)**

Jakinarazten dut ezen Bizkaiko Batzar Nagusiek Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zergari buruzko ekainaren 22ko 5/2022 Foru Araua onartu dutela, 2022ko ekainaren 22ko Osoko Bilkuran, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dudala, araua aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

### **ZENBAIT ZERBITZU DIGITALEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO EKAINAREN 22KO 5/2022 FORU ARAUA**

#### **HITZAURREA**

Otsailaren 8ko 1/2022 Legea otsailaren 9an argitaratu zen BOEn, Lege honen bidez, aldatu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia.

Onespenaren bidez, Ekonomia Ituneko artikuluei 2021eko uztailaren 29ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren Lehenengo Akordioaren edukia gehitzen zaie. Akordio hori Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi zuten abenduaren 13ko 7/2021 Foru Arauaren bidez, eta, horren arabera, itundutako tributu batzuen ituntze-arauak aldatu dira eta bi zerga gehiago itundu dira.

Itundu berri diren zergetako bat zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga da. Indarreko Ekonomia Itunaren 34 ter artikulua arabera, zerga horri Estatuak aldi bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkio. Hala ere, aitorten- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuak Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Horregatik, xedapen hau eman behar da, gure ordenamenduan txertatzeko zerga berri honen gaineko arauak, Ekonomia Itunean haren ordainarazpenerako finkatutako lotura-puntuak aintzat hartuz.

Ildo horretan, zerga-egoitza non duten gorabehera, zergadunek Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako zergapeko zerbitzu digitalen prestazioen proportzioan ordainduko diote zerga Bizkaiko Foru Aldundiari. Ondorio horietarako, zerbitzu digitalen prestazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan egintzat joko dira baldin eta erabiltzaileak bertan kokatuta badaude foru-arau honetan ezartzen diren lokalizazioko arauen arabera.

Zerga hau 4/2020 Legeak sortu zuen (4/2020 Legea, urriaren 15ekoa, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzkoa). Zenbait zerbitzu digital egitea kargatzen du. Hain zuzen ere, zerga honek kargatzen dituen zerbitzu digitaletan erabiltzaileek parte hartzen dute zerbitzua ematen duen enpresaren balio-sorkuntzako prozesuan, enpresak zerbitzuen bitartez erabiltzaileen ekarpenak dirutzen baititu.

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergak ematen diren zerbitzuak kargatzen ditu, erabiltzailearen inguruabarrak kontuan eduki gabe (gaitasun ekonomikoa, besteak beste), eta horregatik ez da ez errentaren ez ondarearen gaineko zerga eta, ondorioz, ezin zaizkio aplikatu zergapetze bikoitzaren kontrako hitzarmenak, OCDEk egindako «Digitalizazioaren ondoriozko zerga-erronkak. 2018ko behin-behineko txostena» dokumentuan ezartzen den bezala. Beraz, zeharkako zerga da eta, gainera, bateragarria da balio erantsiaren gaineko zergarekin.

Zerga honek honako zerbitzu hauek ematea kargatzen du (foru arau honen ondorioetarako «zerbitzu digitalak» esango diegu): interfaze digital batean publizitatea jartzea interfazea

erabiltzen dutenentzat («lineako publizitate-zerbitzuak»); interfaze digital multifazetikoa erabilgarri jartzea, erabiltzaileek beste erabiltzaile batzuk aurkitu eta elkarrekin aritzeko edo are elkarri ondasunak emateko edo zerbitzuak egiteko («lineako bitartekaritza-zerbitzuak»); erabiltzaileek interfaze digitaletan jarduerak egitean biltzen diren haiei buruzko datuak eskualdatzea, saltzea edo lagatzea barne («datuak eskualdatzeko zerbitzuak»). Inolaz ere ez da halakotzat joko komunikazio-seinaleak garraiatzea, 9/2014 Lege Orokorrean aipatzen dena (9/2014 Lege Orokorra, maiatzaren 9koa, telekomunikazioena).

Zergaren oinarrien arabera, kargapean ez dauden kasuak azaltzean argitzen da honako hauek ez daudela zergaren karga-esparruaren barruan besteak beste: lineako bitartekaritza-zerbitzuen erabiltzaileen arteko ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; ondasunak edo zerbitzuak hornitzen dituztenen web orrien bitartez linean kontratatzen diren ondasunen edo zerbitzuen salmentak («merkataritza elektronikoa» ari diren txikizkarien jarduerak), baldin eta hornitzaileak ez badu jarduten bitartekari modura, zeren eta txikizkariarentzat balioa hornitutako ondasunek eta zerbitzuek sortzen baitute eta interfaze digitala komunikabide modura baino ez baita erabiltzen. Ondasunak edo zerbitzuak linean saltzen dituen hornitzailea bere kontura ari den edo bitartekaritza-zerbitzuak egiten dituen ebazteko, eragiketaren substantzia juridikoa eta substantzia ekonomikoa eduki behar dira kontuan.

Zerga honen zergadunak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek 34.3 artikuluan aipatzen dituen pertsona juridikoak eta entitateak, egoitza Espainian, Europar Batasuneko beste estatu batean zein Europar Batasunetik kanpoko estatu edo jurisdikzio batean eduki, baldin eta likidazioaldiaren hasieran honako bi muga hauek gainditzen badituzte: aurreko urte naturaleko negozioen zenbateko garbia 750 milioi eurotik gorakoa izatea; zergaren kargapeko zerbitzu digitalen bidez aurreko urte naturalean lortutako diru-sarreraren guztirako zenbatekoa, zerga-oinarria kalkulatzeko erregelak aplikaturik (zehazteko diru-sarreretatik zenbat sortu duten Espainiako lurraldeko erabiltzaileek), 3 milioi euro baino gehiago izatea.

Lehen mugari esker zerga enpresa handiei baino ez zaie aplikatuko. Izan ere, halako enpresak gauza dira erabiltzaileen datuetan eta ekarpenetan oinarritutako zerbitzu digitalak emateko eta horretarako erabiltzaile-sare handiak, datu-trafiko handia eta merkatuko posizio sendoa baliatzen dituzte batik bat. Muga hau Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko 2016/881 (EB) Zuzentarauan agertzen da (zuzentarau honek 2011/16/UE Zuzentaraua aldatzen du zergen arloko informazioa nahitaez trukatu beharri dagokionez eta ezartzen du aitortpena aurkeztu behar dela herrialdekako txostenari dagokionez), bai eta OCDEren eta G-20ren zerga-oinarriaren narriadurari eta mozkin-lekualdaketari (BEPS, ingelesezko siglak) buruzko 13 Ekintza (transferentzia-prezioei eta herrialdekako txostenari buruzkoa) aplikatuz ezarritako nazioarteko antzeko arauetan eta Europako araugintzako beste proiektu batzuetan ere.

Muga honek segurtasun juridikoa ekarriko du, berari esker bai enpresek bai zerga administrazioak errazago zehaztu ahal izango baitute entitate bat zergaren kargapean dagoen ala ez. Gainera, muga honi esker zerga berriaren kargatik salbuetsi ahal izango dira enpresa txikiak eta ertainak eta goraka ari diren enpresak, horientzat zergaren kargaren kostua neurritz kanpokoa izango litzateke eta.

Bigarren mugari esker zergaren aplikazioa kasu jakin batzuetara mugatu ahal izango da, hain zuzen ere zergaren aplikazio-lurraldean kargapeko zerbitzuek arrasto digital handia uzten duten kasuetara.

Izan ere, zergaren aplikazio-lurraldearekin nolabaiteko lotura duten zerbitzu digitalak baino ez dira egongo zergaren kargapean, eta lotura egoteko ezinbestekoa izango da lurralde horretan zerbitzu digitalen erabiltzaileak egotea; horixe da karga eragiten duen lotura. Zerbitzuen erabiltzaileen egoitza zergaren aplikazio-lurraldean dagoenez ebazteko arauak ezarri dira, berariazko arauak zerbitzu digital bakoitzerako. Oinarritzko irizpidea da non dagoen zerbitzuak erabiltzeko baliatu den gailua, eta horretarako IP helbideetara jo ohi da (beste frogabide batzuk ere erabil daitezke, batez ere gailuen geolokalizatorako beste tresna batzuk).

Zerga-oinarria zergadunak zergaren aplikazio-lurraldean egiten duen zergapeko zerbitzu digital bakoitzagatik jasotzen dituen diru-sarreraren zenbatekoa izango da, balio erantsiaren gaineko zerga edo antzeko zerga zenbatu gabe. Zerga-oinarriaren kalkulua dela-eta, berariazko arauak

ezartzen dira zergaren aplikazio-lurraldean dauden erabiltzaileei dagozkien diru-sarrerak soilik kargatu ahal izateko.

Zergaren karga-tasa %3koa izango da eta kargapeko zerbitzugintza bakoitza gertatzen denean sortuko da. Likidazioaldia hiru hilekoa izango da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betez, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena) ezartzen diren izapideak bete dira.

### **1. artikulua. Izaera eta xedea.**

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga zeharkako zerga da eta zenbait zerbitzu digital kargatzen ditu, foru arau honetan ezartzen den moduan eta bertan finkatzen diren kasuetan, zergaren aplikazio-lurraldeko erabiltzaileek parte hartzen dutenean.

### **2. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.**

1. Indarreko Ekonomia Itunaren 34 ter artikuluan xedatzen denaren esparruan, zerga hau foru arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezartzen denarekin bat etorri eskatuko da.
2. oru arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du barne-ordenamenduan xertatutako nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoak.

### **3. artikulua. Zergaren ordainarazpena eta Ikuskapena.**

1. Zerga-egoitza non dagoen gorabehera, zergadunek Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako zergapeko zerbitzuen proportzioan ordainduko diote zerga Bizkaiko Foru Aldundiari.

Proportzio hau ehuneko modura adieraziko da (bi hamarrenekin biribilduta): Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako zergapeko zerbitzuekin lortutako diru-sarreraren ehuneko zergaren aplikazio-lurraldean egindako zergapeko zerbitzu guztien diru-sarreretan. Horretarako, diru-sarreraren zenbatekoan ez da sartuko balio erantsiaren gaineko zerga ez antzeko zergarik.

2. Zerbitzu digitalen prestazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan egintzat joko dira, baldin eta foru arau honen 7. artikuluan ezartzen diren geolokalizatorako arauen arabera bertan badaude erabiltzaileak.
3. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio zerga ikuskatzea, baldin eta zergadunaren egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan badago, ukitutako gainerako tributu-administrazioen elkarlana baztertu gabe, eta ondorioak izango ditu administrazio eskudun guztien aurrean, haiei dagokien tributazio-proportzioa barne.

Ikuskapen-jarduketa horien ondorioz zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori hainbat administrazioi badagokie, Bizkaiko zerga Administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada.

Bizkaiko Foru Aldundiaren organo ikuskatzaileek euren jarduketan emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei. Bizkaiko zerga Administrazioak egiaztapenetan ezarritako proportzioak zergadunarentzat ere ondorioak ekarriko ditu, likidatutako betebeharren inguruan, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

#### **4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.**

Foru arau honen ondorioetarako, honako kontzeptu hauek finkatzen dira:

1. Eduki digitalak: formatu digitalean ematen diren datuak, interfaze digitalaren beraren datuak ez beste guztiak: ordenagailuko programak, aplikazioak, musika, bideoak, testuak, jokoak eta bestelako zeinahi programa informatiko.
2. IP helbidea: gailu bati Internet bidez konektatzeko ematen zaion kodea.
3. Taldea: entitate-multzoa; entitateetako batek besteak kontrolatzen ditu edo kontrola ditzake, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, bakoitzaren egoitza non dagoen eta urteko kontu bateratuak aurkeztu behar dituen ala ez gorabehera.
4. Interfaze digitala: komunikazio digitala ahalbidetzen duen programa, nolana hiko, are web orriak edo haien atalak ere, edo aplikazioa, gailu eramangarrietakoak barne, edo erabiltzaileek komunikazio digitaletarako erabil dezaketen edozein tresna.
5. Zerbitzu digitalak: lineako publizitate-zerbitzuak, lineako bitartekaritza-zerbitzuak eta datuak transmititzeko zerbitzuak, horietan baino ez.
6. Lineako publizitate-zerbitzuak: norberaren edo hirugarren baten interfaze digitalean publizitatea sartzea interfazea erabiltzen dutenentzat. Publizitatea jartzen duen entitatea ez bada interfaze digitalaren jabea, bera hartuko da publizitate-zerbitzuaren hornitzailetzat, ez interfazearen jabea.
7. Lineako bitartekaritza-zerbitzua: erabiltzaileen esku jartzea interfaze digital multifazetikoa (zenbait erabiltzailek aldi berean erabil dezaketena), elkarri ondasunak emateko edo zerbitzuak egiteko edo beste erabiltzaile batzuk aurkitu eta elkarrekin aritzeko.
8. Datuak eskualdatzeko zerbitzua: erabiltzaileek interfaze digitaletan jarduerak egitean biltzen diren haiei buruzko datuak eskualdatzea, saltzea edo lagatzea barne.
9. Erabiltzailea: interfaze digital bat erabiltzen duen edozein pertsona edo entitate.
10. Erabiltzaileentzako publizitatea: interfaze digital baten erabiltzaileen artean produktu, zerbitzu edo marka bat sustatzeko asmoarekin haiei buruz bildutako datuetan oinarrituta sortzen den edozein komunikazio digital. Besterik frogatu ezean, publizitate guztia «erabiltzaileentzako publizitatea» da.
11. Araututako finantza-zerbitzuak: araututako finantza-entitate batek egin ditzakeen finantza-zerbitzuak.
12. Araututako finantza-entitatea: finantza-zerbitzuak egiten dituen entitatea, finantza-zerbitzuei buruzko Batasuneko estatu bateko arau baten edo Europa Batasunaren harmonizazio-neurri baten aplikazioz baimena, erregistroa edo gainikuspena behar duena, are Europar Batasunaren egintza juridiko baten bidez Europar Batasunaren neurrien baliokidetzat jotzen den Europar Batasuneko ez den arau baten arabera gainikuspena aplikatu behar zaien finantza-zerbitzuen hornitzaileak ere.
13. Zergaren aplikazio-eremua: Espainiako lurraldea.

#### **5. artikulua. Zerga-egitatea.**

Zergaren kargapean daude beraren aplikazio-lurraldean zergaren zergadunek ematen dituzten zerbitzu digitalak.

#### **6. artikulua. Zergapean ez daudenak.**

Ez daude zergaren kargapean:

- a) Ondasunak edo zerbitzuak hornitzen dituztenen web orrien bitartez linean kontratatzen diren ondasunen edo zerbitzuen salmentak, baldin eta hornitzaileak ez badu jarduten bitartekari modura;
- b) Lineako bitartekaritza-zerbitzuen erabiltzaileen arteko ondasun-emateak eta zerbitzugintzak;
- c) Lineako bitartekaritza-zerbitzuak, baldin eta interfaze digitala erabilgarri jartzen duen entitateak egiten dituen zerbitzuen helburu bakarra bada erabiltzaileei eduki digitalak ematea edo komunikazio-zerbitzuak edo ordainpeko zerbitzuak ematea;
- d) Araututako finantza-entitateek araututako finantza-zerbitzuak;
- e) Datuak eskualdatzeko zerbitzuak, araututako finantza-entitateek eginez gero;
- f) Entitate batek zerbitzu digitalak ematea zuzenean edo zeharka % 100eko partaidetza daukan talde bereko entitate bati.

## **7. artikulua. Zerbitzu digitalak non egiten diren.**

1. Zerbitzu digital bat zergaren aplikazio-lurraldean egintzat joko da, baldin eta erabiltzaileetako baten egoitza bertan badago, kontuan eduki gabe erabiltzaileak zerbitzuaren ondoriozko diru-sarrerak gehitzen dituen kontraprestaziorik ordaindu duen ala ez.
2. Erabiltzailea zergaren aplikazio-lurraldean dago honako kasu hauetan:
  - a) Lineako publizitate-zerbitzuetan, publizitatea erabiltzailearen gailuan agertzen den unean gailua zergaren aplikazio-lurraldean egonez gero.
  - b) Erabiltzaileen arteko ondasun-emateak edo zerbitzugintzak gertatzen diren lineako bitartekaritza-zerbitzuetan, erabiltzaileak ondasun-ematea edo zerbitzua egiteko erabiltzen duen interfaze digitala dagoen gailua zergaren aplikazio-lurraldean badago eragiketa amaitzen denean. Gainerako lineako bitartekaritza-zerbitzuetan, interfaze digitalean sartzeko kontua irekitzeko erabili den gailua zergaren aplikazio-lurraldean egon bada kontua ireki denean.
  - c) Datuak eskualdatzeko zerbitzuetan, eskualdatzen diren datuak sortu dituen erabiltzaileak erabili duen interfaze digitalean sartzeko erabilitako gailua zergaren aplikazio-lurraldean egon bada datuak sortu direnean.
3. Zerbitzu digital bat non egin den zehaztean ez dira kontuan edukiko:
  - a) Lineako bitartekaritza-zerbitzuetan, non gertatu den ondasun-ematea edo zerbitzugintza;
  - b) Nondik egin diren zerbitzu digitalarekin lotutako ordainketak.
4. Artikulu honen ondorioetarako, erabiltzaile baten gailu jakin bat beraren IP helbidea dagoen lekuan dagoela pentsatuko da, zuzenbidean onartu daitekeen frogabide baten bitartez, batez ere geolokalizazioko tresnak erabiliz, beste nonbait dagoela ondorioztatu ezean.
5. Erabiltzaileen datu hauek baino ezin dira bildu foru arau hau aplikatzeko: erabiltzaileen gailuak zergaren aplikazio-lurraldean daudenez zehazteko behar diren datuak.

## **8. artikulua. Zergadunak**

1. Zerga honen zergadunak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 34.3 artikuluan aipatzen dituen pertsona juridikoak eta

entitateak, baldin eta likidazioaldiko lehen egunean honako bi muga hauek gainditzen badituzte:

- a) Aurreko urte naturaleko negozioen zenbateko garbia 750 milioi eurotik gorakoa izatea; eta
- b) Zergaren kargapeko zerbitzu digitalen bidez aurreko urte naturalean lortutako diru-sarreraren guztirako zenbatekoa, 10. artikuluko arauak aplikatuta, 3 milioi euro baino gehiago izatea.

Aurreko urtean jarduera hasi bada, urte osoko zenbatekoak kalkulatu behar dira.

2. 1. zenbakian aipatzen diren zenbatekoak ez badaude euroetan, eurotara ekarri behar dira baliagarri dagoen kasuan kasuko urteko Europar Batasunaren Egunkari Ofizialaren azken zenbakian argitaratutako truke-tasa aplikatuz.
3. Entitatea talde baten barruan badago, 1. zenbakian aipatzen diren mugetarako talde osoaren negozioak eta diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

Ondorio horietarako:

- a) 1. zenbakiko a) letrako muga Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko 2016/881 (EB) Zuzentarauan agertzen da (zuzentarau honek 2011/16/UE Zuzentaraua aldatzen du zergen arloko informazioa nahitaez trukatu beharri dagokionez eta ezartzen du aitortpena aurkeztu behar dela herrialdekako txostenari dagokionez), bai eta OCDEren eta G-20ren zerga-oinarriaren narriadurari eta mozkin-lekualdaketari (BEPS, ingelesezko siglak) buruzko 13 Ekintza (transferentzia-prezioei eta herrialdekako txostenari buruzkoa) aplikatuz ezarritako nazioarteko antzeko arauetan ere;
- b) 1. zenbakiko b) letrako muga aplikatzean kontuan hartuko dira talde bateko entitateen artean egiten diren zergapeko zerbitzu digitalak. Taldeak muga horiek gainditzen baditu, taldeko entitate guztiak zergadunak izango dira, zerga-egitatea eginez gero, b) letraren arabera dagozkien diru-sarreraren zenbatekoa gorabehera.

## **9. artikulua. Sortzapena.**

Zerga kargapeko eragiketaren bat egiten edo gauzatzen denean sortuko da. Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, zerga-egitatea gauzatu baino lehenagoko ordainketa aurreratuak sortzen dituzten kargapeko eragiketetan, prezioa (osorik edo zati bat) kobratzen denean sortuko da zerga (zenbatekoa benetan jasotako kopurua izango da).

## **10. artikulua. Zerga-oinarria.**

1. Zerga-oinarria zergadunak zergaren aplikazio-lurraldean egiten duen zergapeko zerbitzu digital bakoitzagatik jasotzen dituen diru-sarreraren zenbatekoa izango da, balio erantsiaren gaineko zerga edo antzeko zerga zenbatu gabe.

Talde bateko entitateen arteko zerbitzu digitaletan, zerga-oinarria zerbitzuaren merkatuko balio arrunta da.

2. Zerga-oinarria kalkulatzeko arau hauek aplikatuko dira:

- a) Lineako publizitate-zerbitzuetan, kalkulatu da zenbat aldiz agertu den publizitatea zergaren aplikazio-lurraldean eta zenbat guztira, gailu guztietan, zergaren aplikazio-lurraldean zein beste nonahi daudenetan, eta kopuru bien arteko proportzioa zergaren aplikazio-lurraldean lortutako guztirako diru-sarrerei aplikatuko zaie.
- b) Erabiltzaileen arteko ondasun-emateak edo zerbitzugintzak gertatzen diren lineako bitartekaritza-zerbitzuetan, zergaren aplikazio-lurraldean dauden erabiltzaileen eta

zerbitzuan aritzen diren guztirako erabiltzaileen zenbatekoen arteko proportzioa aplikatuko zaie lortutako guztirako diru-sarrerei.

Gainerako bitartekaritza-zerbitzuen zerga-oinarria erabiltzaileek zuzenean sortutako guztirako diru-sarreraren zenbatekoa izango da, baldin eta interfaze digitalean sartzeko kontua irekitzeko erabili den gailua zergaren aplikazio-lurraldean egon bada kontua ireki denean.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ez da kontuan edukiko noiz ireki den erabilitako kontua.

- c) Datuak eskualdatzeko zerbitzuetan, zergaren aplikazio-lurraldean egon diren erabiltzaileen eta erabiltzaileen guztirako zenbatekoen arteko proportzioa aplikatuko zaie erabiltzaile guztien datuak eskualdatuta lortutako guztirako diru-sarrerei.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ez da kontuan edukiko noiz bildu diren eskualdatutako datuak.

- 3. Baldin eta likidazioaldiaren barruan ez bada argitzen zenbatekoa den zerga-oinarria, zergadunak behin-behineko zerga-oinarria kalkulatu behar du arazoitutako irizpideak aplikatuz, kontuan edukita zerbitzu digitalak diru-sarrerak sortuko dituztenaldi osoa. Gero, zerga-oinarriaren benetako zenbatekoaren berri jakinez gero, likidazioaldiaren erregularizazioa egin beharko da autolikidazio baten bidez.

Erregularizazioa eragiketaren zerga sortu ondoko lau urteetan egin behar da gehienez ere.

- 4. Zerga-oinarria oker kalkulatzeko bada, zergadunak zuzendu egin beharko du, eta horretarako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta hori garatzen duen arautegian ezartzen dena aplikatuko beharko du.
- 5. Zerga-oinarria kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliko da. Honen salbuespen bakarrak zerga-oinarriak zeharkako zenbatespenaren metodoaren bidez kalkulatzeko arauetan ezartzen direnak dira.

## **11. artikulua. Zerga-tasa.**

Zerga honen karga-tasa %3koa da.

## **12. artikulua. Kuota osoa**

Kuota osoa zerga-oinarriari zerga-tasa aplikatuz kalkulatzeko da.

## **13. artikulua. Betebehar formalak**

- 1. Zerga honen zergadunek honako betebehar hauek dauzkate (baldintzak, mugak eta betekizunak araudian zehaztuko dira):
  - a) Zergapeko jardueren hasierari, aldaketei eta amaierari buruzko aitorpenak aurkeztu behar dituzte.
  - b) Identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu behar diote Administrazioari eta ezartzen diren kasuetan eman eta frogatu egin behar dute.
  - c) Araudian ezartzen diren erregistroak arteztu behar dituzte.
  - d) Aldian-aldean, edo Administrazioak eskatuz gero, egindako zerbitzu digitalei buruzko informazioa eman behar dute.
  - e) Zergadunaren egoitza ez badago Europar Batasunean, ordezkaria izendatu behar du foru arau honek ezartzen dituen betebeharrak betetzeko.

Zergadunak edo ordezkariak izendapenaren berri eman behar diote zerga administrazioari, behar bezala egiaztatuta, zergaren kargapeko eragiketen aitortpena aurkezteko epealdia amaitu baino lehen.

- f) Zergaren kargapeko eragiketen frogagiriak eta egiaztagirak gorde behar dituzte Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak ezartzen duen preskripzio-aldian. Hain zuzen ere, kargapeko zerbitzu digitalak non egin diren identifikatzeko behar diren frogabide guztiak gorde behar dituzte.
  - g) Zerga administrazioak zergadunaren zerga-egoera kontrolatzeko eskatuz gero, euskarara edo gaztelaniara itzuli behar dituzte zergaren aplikazio-lurraldean egintzat jotzen diren zerbitzu digitalei dagozkien fakturak, kontratuak edo egiaztagirak.
  - h) Erabiltzaileen gailuak zergaren aplikazio-lurraldean daudenez zehazteko behar diren sistemak, tresnak edo akordioak ezarri behar dituzte.
2. Gainera, zergen arloko arautegian ezartzen diren gainerako betebeharrak formal guztiak ere bete behar dituzte.

#### **14. artikulua. Zergaren kudeaketa.**

- 1. Likidazioaldia hiruhileko naturala izango da. Zergadunek autolikidazioak aurkeztu behar dituzte eta haien emaitzako kopuruak ordaindu behar dituzte. Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak foru agindu batean zehaztuko du aurkezpena eta ordainketa nola, non eta noiz egin behar diren.
- 2. Zerga ordainarazteko eskumena Bizkaiko zerga Administrazioak badauka, zergadunek berari aurkeztu beharko dizkiote zergaren autolikidazioak. Autolikidazioetan nahitaez zehaztu behar da zenbateko kuota dagokion administrazio bakoitzari.

Zergadun bati dirua itzuli behar bazaio, itzulketa Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du.

#### **15. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.**

- 1. Artikulu honetako xedapen bereziak gorabehera, zerga honen inguruko arau-haustea kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuko da (2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzkoa), bai eta aplikatu beharreko gainerako arau guztiak ere.
- 2. Zerga honen ondorioetarako, foru arau honen 13.1.h) artikuluan aipatzen den betebeharra ez betetzea zergen arloko arau-haustea da.

Horren zehapena diru-isuna izango da, hain zuzen ere aurreko urte naturaleko negozio-bolumenaren zenbateko garbiaren % 0,5, foru arau honen 8. artikuluan ezartzen denaren arabera, gutxienez 15.000 euro eta gehienez 400.000 euro aurreko paragrafoan aipatzen den betebeharra bete ez den urte naturaleko.

- 3. Artikulu honetan arautzen den arau-haustearengatik ordaindu beharreko zehapenaren zenbatekoari murrizketa aplikatu ahal izango zaio 2/2005 Foru Arau Orokorra (2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzkoa) 193. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango dituzte.



### **Bigarrena. Indarreen jartzea.**

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarreen eta 2021eko urtarrilaren 16tik aurrera sortuko ditu ondorioa, Ekonomia Itunaren Hamargarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoari kalterik egin gabe.